

MIGEL INTXAURRONDO ARRIERAN  
(1897-1979)

1979.eko Maiatzaren 28.ean hil zen 82 urteduneko apaiza. Nafarroako Arriban jaio zen eta abadegintzako ikastaroak egin ondoren Etulaingo Erretore izan zen gazte denboran. 1924.ean Iruñeko Apaizetxeko euskara irakasle izendatua izan zen Intxaurren jauna eta euskararen alde gogor ekin zuen bai ikastetxean bertan baita Nafarroako Elizbarrudari begira ere. 1926.eko ikastaroaren hasieran hitzaldi bat eman zuen, Mateo Muxika gotzainari zuzendua, gai honi buruz: "La Iglesia y el euskera. Obligación de hablar al pueblo en su lengua nativa y de cultivarla", hurrengo urtean argitara emango zena hiru eranskinez ehun orri osatuz (RIEV, 1927, 203 or.; *Gure Herria*, 1927, 130-38 or.) Ikasleentzat ere *Método práctico del euskera* argitaratu zuen 1928.ean, 476 orridun liburu mardula (*Gure Herria*, 1929, 277 or.) Olerkari trebea ere bait zen Intxaurren jauna eta beraren olerkietatik bat, bahintzat, *Euskal Esnale* aldizkarian azaldu zen: "Aingeruaren iltzean". (1926, 143). Lexikologia arloan ere pausuak eman zituen: Euskaltzaindiaren artxiboan Azkueri zuzendutako lantxo bat dago: "Palabras vascas que no se encuentran en el Diccionario V.E.F. del Sr. Azkue". Zazpi orritan Araiz, Goizueta, Larraun, Lesaka eta Baztanen bildutako hitzak dakartza. Ohartxo bat jarri zuen Azkuek azken orrian: "Hay otra remesa del mismo que contiene 47 palabras"; baina bigarren lantxo hau ez da agertu oraindik artxiboan.

Gudak, Madrilen harrapatu zuen eta Armadako Kaperau izendatu zuten Gineara bidaliz. Orduandanik aurrerantzean herritik kanpo ibili beharrean aurkitu zen eta Cartagenan eta Puerto Rico-ko Humacao-n apaizgintzan jardun zuen 80 urte bete zituen arte. Urte bitako atsedena lortu ondoren hil zaigu euskaltzale hau. Goian bego.

Jose Antonio Arana Martija